

LOS CINCO TESOROS DEL GRAN NEVADO



**Ertzean,
irugarren kanpoan.**

EL Kangchenjunga es la tercera de las más grandes montañas del mundo, y la situada más al Este de todas, allá donde se juntan el Nepal, el Tíbet, Sikkim y Bhutan. El macizo cuenta realmente con cuatro grandes cumbres: la Principal, con 8.586 m., la Central, con 8.482 m., la cima Sur, con 8.476 m. y la Oeste o Yalung Kang con 8.433 m.

Este año ha habido hasta tres grupos diferentes de alpinistas vascos en el macizo del «Kangcha»: dos de ellos coincidieron en primavera en la misma ruta de la cara Norte de la cima Principal, el tercer grupo consiguió el Yalung Kang en otoño.

El 3 de mayo, Martín Zabaleta, en un último empuje


de 2.000 metros de desnivel, alcanza la cima con sus compañeros, el americano Bhuler y el tirolés Habeler. Un día más tarde lo intentan Zulu y Kike de Pablos, que componían su expedición junto a Felipe Uriarte, Juanito Oyarzábal y Xabier Ansa. El mal tiempo fue inexorable y el equipo se volvió sin cima.

A mediados de octubre llega una noticia que coge por sorpresa a muchos enterados. La expedición azpeitiarra ha tenido éxito y Benantxio Irureta ha estado en la cima del Yalung Kang a mediodía del 11 de octubre.

Esto es lo que nos cuentan los protagonistas de esas extraordinarias vivencias.

Hantxenjunda

JOSE LUIS ZULOAGA "ZULU"



Beheko kanpamendutik
Kangchenjunga.

HANTXENJUNDA eta hementxe nago, Bilbo ilun honetan; urtebete bat igaro da Felipek Kangchenjunga joateko proposamena egin zidanetik. Esperientzi gogorrak, atseginak, harrigarriak... neure oroimenetara mordozkadan heltzen dira.

Negua han bertan, Himalayan, Kikerekin eskalatzen pasatu nuen. Gero Tailandiako hondartzetan, kokoteropetan, mendian hartu nuen hotza kentzeko.

Kathmanduko aireportuan, emozionata; hiru hilabete daramatzat Asiatik ibiliz eta gaur, Martxoak 17 besteok heldu dira martzaz beterik. Beno bagoaz mendi haundi hori igotzera.

—*Eh satil txar dalbat ra txar tomba dinus.*

Beheko kanpamendurako bidetik goaz, azkeneko erosketak eta burokrazia amaitu ondoren. Nepaleko bide eder hauetatik goaz; herriz herri, etxez etxe... dena ihezkorri ezagutzen dugularik; bagoaz geure lehenengo helburua betetzera; mendiaren oinetaraino heltzea, bi hilabetetan bizi izango gareneko etxea hau eraikitzeko.

Iritsi gara, eta nazioartekoaren kanpamendua ikusi. Espedizio horretan Martin Zabaleta dabil, gure laguna.

Hemen gaude, bakoitzak bere jakitea darrakela. Felipek bere azeri zaharraren baretasuna, Juanitok bere indarra eta grina, Xabik gaztetxoaren bultzada, Neuk ez dakit zera; eta denon artean mendiari metroak irabazten ari gatzaizkio, gero eta morala altuagoa daramagularik. Iadanik mendiaren barnean gaude, mendijainko honen beso artetan gure oinatza zabaltzen da eta oraindik ez dakigu gustatzen zaion ala ez. Momentuz eguraldiak eta mendiak onartzen gaituzte, gu goruntz aurreratzen garen bitartean. Beste espedizioarekin bidea konpartitzeko erabakia hartu dugunez, txandaka bigarren kanpamendutik aurrera dagoen horman sokak jartzen dihardugu.

Eta orain Martinek idatzi duenaren harriari jarraituz:

Irrintzi horiekin ongi etorri esaten saiatzen ginen, bi egunetan beheko kanpamenduan arduraturik haien zain egon eta gero.

Gure lehenengo saioa pikutara joan zen ekaitz horrengatik, egun bat gehiago eguraldi onaz eta geuk ere tontorra lortu izango genuen; baina holan da Himalaiako mendien majia edo poderio.

Sendimenduak nahazten ziren, poztasuna geure lagunak bizidunak etorri zitzaizkigula-



Bigarren
kanpamenduko
kobaren aurrean.

ko, inbidia heuren garai gogor horrekin amaitu zutelako, eta etxerako bidea hartuko zuten; aldi berean berri oso txarrak ematen zizkiguten, gure bigarren eta hirugarren kanpamenduak desagerturik zeudela, eta guk ia



**Martin bizidun
heldu da tontorratik.**


gure material guztia hau geneukalarik; beste saio batzu egitea oso zaila jartzen zitzaigun.

Material pixkat beraiei erosi, roilu txarra amerikarekin euki harroputza bihurtu baitzen.

Baina bigarren saioa egitera abiatu ginen, geure buruak zalantza betetik zeudenean. Haize izugarria egiten zuelarik, bigarren kanpamendua egon zeneko lekura iritsi ginen, eta errimayan, kobazulo bat egin genuen, gure bigarren kanpamendu berria. Handik 7.000 metrotaraino saioa burutu genuen, eta berriz eguraldi txarrak beheko kanpamendurako bidea hartzera bultzatu ginduen. Bagenekien azken saio honetan oker ibili ginen, beheko kanpamendutik irtezeko presagatik. Iadanik maiatzaren 16a heldu zitzaigun eta tontorra eskuratzeko aukera gero eta txikiagoa zelakoan hirugarren saioa, gogorrena, burutzera irten ginen. Energia, ilusio eta indarraz betetik gindoa zen, ia eguraldia aditu gabe, lau egunetan elur sakon-sakonaren aurka borroka eginez heltzen gara geure laugarren kanpamendura

Egilearen argazkiak.

KANGCHENJUNGA, 8.596 m.



Orain edo inoiz ez

MARTIN ZABALETA

MAITZAREN 2a zen eta zazpi mila eta laurehun metrotan nengoan, Kangchenjungako laugarren kanpamentuan. Eguraldia epel, haizea bare eta tontorra hurbil. Duela hiru hilebete ez nuke inolaz ere sinistuko holako egoeran aurkituko nintzenik. Dana, telefonoko dei batekin hasi zen, otsaila erdi aldean.

—Bai?

—Karlos Bulher nauk. Kangchenjungara etorri nahi al duk?

—Eta nola hoak espedizio horretan?

—Peter Habeler, austriarra, gurekin batera hator, eta ipar aurpegitik igotzeko daukak baimena.

Bapatean, zer esan jakin gabe gelditu nintzen, baina urrengo egunerako erabakita neukan Kangchenjungako abentura horretan sartuko nintzela buru belarri.

Hiru hilebete pasatu zuen eta hantxe nengoan, giro ederrean, hurbiltze bidea eta mendiko eskalada hartaraino eragozpen handirik gabe aurrera eraman ondoren. Nere bi lagunak han zeuden baita ere.

Peter Habeler, neratzako mito bat zen, eta pertsona eta alpinista bezala ezagutu ondoren, oraindik ere mito bat da. Ez mito eskuratu eziña, gizon apal apal bait da, bere buruaz eta berak egindako eskaladaz ez du apenas hitz egiten. Biok, kultur zahar eta txikietatik gentorren. Bera Tirolen jaioa zen eta tirolesa sentitzen zen beste etiketen gainetik. Bai honetan eta beste zenbaitetan ere ondo ulertzen genuen elkarri.

Karlos, amerikarra bezala, mutil ona zen, haur handi bat. Gu baino konplikatuagoa, kezkatu, beti gorako jotzeko gogoz.

Nahiz eta hirurok ezberdinak izan, ondo konponentzen ginen. Esperientzi nahikoa



Lehenbiziko
kanpoa berakoa.



Irugarren
kanpoan, 7.350 m.

geneukan jakiteko bakoitzaren maniak, maniak besterik ez zirela eta uskeri hoiei ez zaie garrantzirik eman behar.

Egia esan, inoiz ez nintzan sentitu lehenago hain kondizio honetan Himalaiako altueretan. Gorputza sasoiean, giroa atsegiña, zerua oskarbi, elurra gogor. Txindokin bezala egoten zen. Gure dendatxotik harrigarriko paisaia menperatzen genuen: Han, azpian, Sikkim erreinu txikiaren lurraldeak, harago luzatzen ziren Tibeteko lautadak eta aurrez aurre, beste mendi guztien gaintik Everesteko tontorra, hirurontzat hainbeste oroitza ekartzen zuen izenak.

Haizea bare

Gaueko ordu bata izango zen altsatu ginean. Maiatza hiruan geunden, eta bagenekien estreinatuta berria zegoen eguna erabakikorra izen zezakeela gure helbururako. Peter kanpora atera zen eguraldia ikusteko.

—Haize gogorra zeok— esan zigen berriro denda barrura sartzean. Hala ere, jarraitu genuen prestaketak egiten: elurra urtzen, erropak jazten. Hirurak aldera izango ziren neuk kanporatu nintzenean. Zerua garbi garbi azaldu zitzaidan eta haizea baretuago.

—Eh, kristonaren eguraldia zeok, goazen tontorrera— animatu nien barruan zeuden bi lagunei.

Horrela, abiatu ginen. Gure gainetik mila eta ehun metro baino gehiago geneukan lortu behi genuen tontorra gainditzeko.

Giroa eta mendia oso kondizio onetan zeuden, eta inongo eragozpenik gabe joan ginen altura irabazten, Doug Scottek jarritako kanpotik pasa ginen eta ezkerreko joa genuen, 45° ko kouloir bat hartzera. Bakoitzak bere aldetik zihoan, sokarik gabe, Pirineotan bezala. Peterrek aurrera hartuta zeukan, ordu t'erdia bat ni baino lehenago. Karlos, berriz, atzetik zetorren, eta beraren zai egon nintzen. Azaldu zenean itxaroteko esan zidan eta hala biok batera jarraitu genuen goraka. Orduko, Peter azken hertzean sartuta zegoen eta goizeko bederatziak izango ziren tontorrera iritsi zenean.

Ekaitzaren manua

Beharantzerakoan, gurekin gurutzatu zenean eguraldia aldatzen hasia zegoen. Pete-

rek eguraldiaren egoera latza bihurtuko zela denbora gutxi barru, abisatu zigan.

—Bueltatzen bazarete, hobe— aholkatu zigan.

Horrela gauzak jarrita, Karlosi esan nion.

—Hi, orain edo behin ez, —eta zalanza bertan erabakita, biok gailur alderojo genuen.

Pizkanaka menderatzen joan ginen azken metroak. Utzi genituen lepo txiki batean motxilak arinago joateko, elurte gogor baten erdian. Bi ordutan belaunetaraino sartzen ginen, eta azken zati hura oso peligrrosoa bihurtu zitzaigun.

Oraindik, ordu t'erdia borrokatu behar izan genuen, haizea eta elurraren kontra, kontu handiz, aukeratzen egokiena iruditzen zitzaigun lekuak igotzeko, hurbiltzen joan ginen gailur aldera. Hotzak zorrotz koska egiten zuen gure gorputzetan. 45° zero azpitik zeudela esaten ba det ez da astakeri bat izango.

Ordu bietan iritsi ginen azkenik tontorrera. Han aurkitu genuen Peterrek utzitako Tiroleko banderatxoa eta baita Messnerrek igotakoa. Ba zegoen ere plastikozko buru bat, maniki batena edo holako bat, ez dakit zein erok eramandakoa haraino. Nik ikurriña eramane nuen, baino atera ere ez nuen egin. Han ez zegoen egoterik.

Azkar jaitsi ginen leporaino. Karlos oso arduratuta zegoen bere hankekin sentitzen ez zituelako. Horrela gauzak, zoko batean babestu ginen eta bere oinak nere arropa barruan sartu nintuen berotan jartzeko. Beste ordu bete pasa genuen horrela eta obeto sentitu zenean jarraitu genuen gure jaitsikera.

Orduko, mendia oso arriskutxoa zegoen abalantxagatik. Une batean nabarmendu nuen elur malda osoa beharaka zetorrela. Bi bastoiekin heldu hintzen tinko eta elur hautsa zenez, mantendu ahal izan nintzen, aramanda izan gabe.

Ahastu ezinezkoa

Gaua sartuta zegoen, eta erdi galduta genbiltzan kanpamentuko denda non ote zen asmatu nahiean. Bederatziak izango ziren, iluntasun hartan argitxo bat ikusi nuen.

Iru
izorratuak.



Egilearen argarkiak.

—Karlos, hor zeok! oihukatu nion emozioz beterik. Eta, beharbada, emozio horren eraginez, botaka hasi nintzen momentu berean.

Peter oso arduratuta zegoen, pentsatzen ez ginela inoiz bueltatuko eta ikusi gintuzenean, ahaztu ezinezko besarkada eman zitzaigun. Oraindik, gogoratzerakoan, ezin eutsitako malkoak ihes egiten dizkidate begietatik. Sarri galdetzen didate zer sentitzen dudan gailurrera iristerakoan, baina ez dakite gailurretik aparte, mendian bizitzen diren une batzuk hangoak baino sakonagoak izan daitezkeela.

Peterrek prestatuta zuen guretzat salda eta ura eta, ekaitzez inguratutik, 7.400 metrotan, baina pozaren pozez, irurok itxoin genuen egun berriaren argia.

Ihez egiten menditik

Abiatu ginenean beharaka, mendia zeharo aldatuta zegoen. Elurrez dana estalirik, ezin genuen soka tinkoak aurkitu, eta haiek bilatu gabe ez geneukan jaizterik. Azkenian azaldu ziren elur azpian eta ate itxi baten giltza aurkitzea bezala izan zen, mendi magaletatik ihes egin ahal izateko.

Hirugarren kanpamentuan utzitako denda ere ez zan inondik agertzen. Ezkerrak laugarrenetik jaitsi gurela hanga denda eta erabaki horrek salbatu gintuen.

Hurrengo egunean hasi nintzen sentitzen barruan hazitzen neukan neumoniaren eragiña, eta pizkanaka nere indarrak ahuldu ziren zihoaz eta sentitu nuen. Banekien leku txar bat pasatu behar gurela jaizteko ipar hertzetik eta zegoen egoeran, elur freskoa, gelaren gainetik, oso peligrrosoa egongo zela.

Irrintziak goraka

Lasai, poliki, joan nintzen jaizten. Beherago ikusten nituen nola Karlos eta Peter ba zihoazela, baino banekien haiengandik ezingo nuela laguntzarik jaso. Bakoitzak nahikoa zuen bere burua salbatzen. Nere itxaropenak gure sherpengan jarrita neuzkan, zeren bigarren kanpamentura hurbiltzen nengoen eta espero nuen haietako bat etorriko zela nere bila laguntzea. Urrenean ikusi nuen gure sirdarra bazetorrela Marten bakarrik egongo banitz eta bapatean bizitasun puntu bat ikusiko banu bezala sentitu nintzen.

Sirdarrak kontatu zidan beraiei ere elur jausi batek eraman zituela gau erdian, eta ozta- ozta salbatu zirela, nahiz eta bi sherpa zaurituri suertatu.

Lehendabiziko kanpamentura iritsi nintzenean, hura ospital bat zirudien. Peterrek eta nik neumo, ia genuen, bi sherpek saihe-tsak puzkatutik... Baina jaitsi behar zen beharaino, ete hurrengo goizean, pastillak jan indarra emateko eta glaziar aldera abiatu ginen. Jadanik gutxi faltatzen zitzaigun mundura itzultzeko, eta Felipe, irrintziak goraka botatzen, entzun nuenen, etxetik hurbil nengoela sentitu nuen.

Transcripción del relato:
Antxon Iturriza.

ASCENSIONES AL KANGCHENJUNGA (8.596 m.)

N.º	ESCALADOR	NACIO.	FECHA	ruta	LEADER
1	George Band	Inglés	25- 5-1955	Cara SW	Charles Evans
2	Joe Brown	»	»	»	»
3	Norman Hardie	Neozelandés	26- 5-1955	»	»
4	Tony Streather	Inglés	»	»	»
5	Prem Chand	Indio	31- 5-1977	Espolón ENE	Narinder Kumar
6	Nima Dorje	Sherpa indio	»	»	»
7	Doug Scott	Inglés	16- 5-1979	Cresta Norte	Doug Scott
8	Peter Boardman¹	»	»	»	»
9	Joe Tasker¹	»	»	»	»
10	Ryoichi Fukada	Japonés	14- 5-1980	Cara NW	Masatsugu Konishi
11	Haruichi Kawamura	»	»	»	»
12	Naoé Sakashita	»	»	»	»
13	Shomi Suzuki	»	»	»	»
14	Ang Phurba	Sherpa	»	»	»
15	Schorsch Ritter	Alemán Occ.	15- 5-1980	Cara SW	Karl Herrligkoffer
16	Nima Dorje	Sherpa	»	»	»
17	Lhakpa Gyalbu	»	»	»	»
18	Motomu Ohmiya	Japonés	17- 5-1980	Cara NW	Masatsugu Konishi
19	Toshitaka Sakano¹	»	»	»	»
20	Dawa Norbu	Sherpa	»	»	»
21	Pemba Tshering	»	»	»	»
22	Kazumi Fujikura¹	Japonés	9- 5-1981	Cara SW	Kinichi Yamamori
23	Akinori Hosaka	»	»	»	»
24	Kunioh Kataoka	»	»	»	»
25	Shigero Suzuki	»	»	»	»
26	Noboru Yamada	»	»	»	»
27	Nima Temba	Sherpa	»	»	»
28	Jozef Psotka¹	Checoslovaco	20- 5-1981	Cara NW	Ivan Galfy
29	Ludovit Zahoransky	»	»	»	»
30	Jean-Jacques Ricouard¹	Francés	15-10-1981	Cara SW	Jean-Jacques Ricouard
31	Michel Parmentier¹	»	»	»	»
32	Innocenzo Menabreaz	Italiano	2- 5-1982	Cara SW	Renato Moro
33	Oreste Squinobal	»	»	»	»
34	Nga Temba	Sherpa	»	»	»
35	Reinhold Messner	Italiano	6- 5-1982	Cara NW	Reinhold Messner
36	Friedl Mutschlechner	»	»	»	»
37	Ang Dorje	Sherpa	»	»	»
38	Georg Bachler	Austriaco	28- 5-1983	Cara SW	Hanns Schell
39	Pierre Béghin	Francés	17-10-1983	Cara SW	Pierre Béghin
40	Marco Bruchez	Suizo	21-10-1983	Cara NW	Denis Bertholet
41	Vincent May	»	»	»	»
42	Takashi Ozaki	Japonés	19- 5-1984	Cara SW	Katsuhiko Kano
43	Ang Tshering	Sherpa	»	»	»
44	Seishi Wada	Japonés	20- 5-1984	»	»
45	Toichiro Mitani	»	»	»	»
46	Roger Marshall¹	Canadiense	18-10-1984	Cara SW	Roger Marshall
47	Jerzy Kukuczka	Polaco	11- 1-1986	Cara SW	Andrzej Machnik
48	Krzysztof Wielicki	»	»	»	»
49	Josep Permañé	Catalán	24-10-1986	Cara SW	Joan Hugas
50	Ang Rita	Sherpa	»	»	»
51	Phu Dorji¹	Sherpa indio	25- 5-1987	Espolón ENE	Prem Lal Kukrety
52	Choten Tsering¹	Indio	»	»	»
53	Fupu Bhutia¹	»	»	»	»
54	Chander Singh¹	»	31- 5-1987	»	»
55	Bhawan Sing	»	»	»	»
56	Subhas Limbu	»	»	»	»
57	Michael Groom	Australiano	10-10-1987	Cara SW	Michael Groom
58	John Coulton	»	»	»	»
59	Lee Jeong Chel	Surcoreano	2- 1-1988	Cara SW	Jung Sang Moo
60	Carlos Buhler	Norteamericano	3- 5-1988	Cresta Norte	Carlos Buhler
61	Peter Habeler	Austriaco	»	»	»
62	Martin Zabaleta	Vasco	»	»	»
63	Masayuki Uno	Japonés	17-10-1988	Cara SW	Masaaki Fukushima
64	Nima Temba	Sherpa	»	»	»

NOTAS NECROLOGICAS

- 8/9 Los ingleses Peter Boardman y Joe Tasker desaparecieron de la cresta NE del Everest, el 18 de mayo de 1982.
- 19 El japonés Toshitaka Sakano falleció por leve accidente en solitario, seguido de posterior congelación, en la vertiente Norte del K2, el 29 de agosto de 1982.
- 22 El japonés Kazumi Fujikura pereció por avalancha en el pico de Nanda Khat (India), el 27 de setiembre de 1981.
- 28 El checoslovaco Jozef Psotka se mató por caída en una grieta de la cara del Lhotse, durante su descenso de la cima del Everest, el 16 de octubre de 1984.
- 30 El francés Jean-Jacques Ricouard pereció al anochecer durante su descenso de la cumbre del Kangchenjunga.
- 31 El francés Michel Parmentier falleció, probablemente por avalancha, en la cara Norte del Everest, tras haber sido visto por última vez el 20 de setiembre de 1988.
- 46 El canadiense (de origen británico) Roger Marshall murió por caída en la cara Norte del Everest, el 21 de mayo de 1987.
- 51/52/53/54 Los indios Phu Dorji (de descendencia sherpa), Choten Tsering, Fupu Bhutia y Chander Singh perecieron durante su descenso de la cumbre del Kangchenjunga, a finales de mayo de 1987. El último formaba parte de un equipo de socorro que buscaba a los tres primeros.

